

Gure erabiltzaileak kalean bizi diren eta etxerik ez duten pertsonak izango lirateke, hau da, behar sozio-ekonomiko bati erantzun bat emateko asmoz antolatzen gara. Gure gizartean klase sozialen arteko desberdintasuna oso nabarmena denez, proiektu honekin, momentu zehatz batean erantzun bat emango dugu, baita arratsaldeetako tartearekin, arlo sozialean esku-hartze bat egingo genuke.

Lo egiteko leku seguru bat izatea, kolektibo honen behar handienetako bat da, batez ere, hotz handiko gauetan. Gure parte hartzaioe profila ez da zehatza, esate baterako, edonorentzako zuzenduta dago, hau da, adina (+18), estatu soziala eta abar, ez du garrantzi handirik. Problematika honen baitan, adin guztietako pertsonak murgilduta daude, horregatik, inolako adin tarterik ez izatea erabaki dugu.

Proiektua Bilbon ezartzen da. Hiria hau egitea erabaki dugu, Bizkaiko hiririk handienetako bat delako eta etxerik gabe dauden pertsonen kopurua nahiko handia delako, beraz hobeago ikusi dugu proiektu hau hor egitea errentagarriagoa delako eta pertsona gehiagori laguntza emango diogulako.

[El Diario-ko informazioa](#)

2018tik 2022ra bildutako datuen arabera, etxerik gabeko pertsona lokalizatuen artean, 2018an % 63 atzerritarrak ziren, eta 2022an, berriz, zifra % 78raino igo zen. Horietatik, gainera, 2018an % 25 30 urtetik beherakoak ziren, eta 2022an % 35. Bizitegi-bazterketako egoeran dauden pertsonen VI. zenbaketan bildutako informazioa da. 2022ko urrian egin zen, Euskadiko 23 udalerritan. Toki-erakundeek, foru-erakundeek eta Eusko Jaurlaritzak egiten duten erradiografia, autonomia-erkidegoko etxegabetasun-egoera ezagutarazteko.

Hurrengo grafikoan, 2005tik hartutako datuak ikus dezakegu, sexuen arteko aldea konparatuz, baita atzerritarrak diren ala ez ere.

